

# **IRATZAR FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK**



## AURKIBIDEA

<b>I. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN ERAKETA</b>	<b>4</b>
1. artikulua. Izena, izaera, nazionalitatea, lurralde eremua eta egoitza.	4
2. artikulua.- Iraupena.	4
3. artikulua.- Araubidea.	4
4. artikulua.- Nortasun juridikoa.	4
<b>II. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA</b>	<b>5</b>
5. artikulua.- Helburuak eta jarduerak.	5
6. artikulua.- Jarduteko askatasuna.	7
7. artikulua.- Helburuen garapena.	7
<b>III. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURUETARAKO ERABILTZEKO ETA ONURADUNAK AUKERATZEKO OINARRIZKO ARAUAK</b>	<b>7</b>
8. artikulua.- Errenten eta diru sarreren zertarakoa.	7
9. artikulua.- Baliabideak helburuen artean kopuru berdinetan banatzeko betebeharririk eza.	8
10. artikulua.- Onuradunen aukeraketa.	8
11. artikulua.- Jardueren zabalkundea.	8
<b>IV. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN PATRONATUA</b>	<b>9</b>
<b>LEHEN ATALA. ARAU OROKORRAK</b>	<b>9</b>
12. artikulua.- Patronatuaren eta patrono karguaren izaera.	9
13. artikulua.- Patrono karguaren doakotasuna eta Fundazioaren eta patronoen arteko kontratazio araubidea.	9
<b>BIGARREN ATALA. PATRONATUA</b>	<b>10</b>
14. artikulua.- Osaera.	10
15. artikulua.- Patronatuko kideak izendatzeko eta ordeztzeko arauak.	10
16. artikulua.- Patronatuko karguak.	11
17. artikulua.- Patronoen eta karguen onarpena.	11
18. artikulua.- Patronoen kargu-uztea.	12
18.bis artikulua.- Patronatu kideak ordezteak	12
19. artikulua.- Eskumenak.	12
20. artikulua.- Bilerak eta erabaki-hartzeak.	15
<b>HIRUGARREN ATALA. ORGANO ESKUORDETUAK</b>	<b>16</b>
21. artikulua.- Batzorde Betearazlea.	16
<b>LAUGARREN ATALA. LEHENDAKARIA</b>	<b>17</b>
22. artikulua.- Eginkizunak.	17
<b>BOSGARREN ATALA. LEHENDAKARIORDEAK</b>	<b>17</b>
23. artikulua.- Eginkizunak.	17
<b>SEISGARREN ATALA. IDAZKARIA ETA IDAZKARIORDEA</b>	<b>17</b>
24. artikulua.- Idazkariaren eginkizunak.	17
25. artikulua.- Idazkariordearen eginkizunak.	18

<b>V. KAPITULUA. BESTE ORGANO BATZUK.</b>	<b>18</b>
<b>LEHEN ATALA. ZUZENDARIA</b>	<b>18</b>
26. artikulua.- Izendapena eta eginkizunak.	18
<b>BIGARREN ATALA. AHOLKU KONTSEILUA</b>	<b>19</b>
27. artikulua.- Izendapena eta eginkizunak.	19
<b>VI. KAPITULUA. EKONOMIA ARAUBIDEA</b>	<b>19</b>
28. artikulua.- Dotazioa.	19
29. artikulua.- Ondarea.	19
30. artikulua.- Fundazioaren ondarea inbertitzea.	19
31. artikulua.- Errentak eta diru sarrerak.	20
32. artikulua.- Afektazioa.	21
33. artikulua.- Kontuak eta ekintza plana.	21
34. artikulua.- Ekonomia ekitaldia.	22
<b>VII. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA</b>	<b>22</b>
35. artikulua.- Erabakia hartzea.	22
<b>VIII. KAPITULUA. FUNDAZIOA BESTE FUNDAZIO BATZUEKIN BATZEA</b>	<b>23</b>
36. artikulua.- Bidezketasuna eta betekizunak.	23
<b>IX. KAPITULUA. FUNDAZIOA IRAUNGITZEA</b>	<b>23</b>
37. artikulua.- Arrazoiak.	23
38. artikulua.- Likidazioa eta gelditzen diren ondasunen banaketa.	23
<b>X. KAPITULUA. BABESLETZA ETA ARAUBIDE ZIGORTZAILEA</b>	<b>24</b>
39. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza	24
40. artikulua. Araubide zigortzailea	24



## **I. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN ERAKETA**

### **1. artikulua. Izena, izaera, nazionalitatea, lurralde eremua eta egoitza.**

1. IRATZAR Fundazioa (aurrerantzcan, Fundazioa) SORTU alderdi politikoarekiko mendekotasun organikoa duen irabazi asmorik gabeko erakundea da. Fundazioaren ondarea modu iraunkorrean erabiliko da estatutu hauetako 5. artikuluan zehaztutako interes orokorreko helburuak betetzeko.
2. Fundazioaren lurralde eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoa izango da, baina Espainiar estatuan eta estatu arteko jarduerak ere egin ahal izango ditu, Frantziar estatuan batez ere.
3. Fundazioaren egoitza helbide honetan egongo da: Donostia, Zuatzuko enpresa parkea, Easo eraikina, 4-behea.
4. Patronatuak beste edozein lekutara aldatu ahal izango du Fundazioaren egoitza, estatutuetan horretarako beharrezkoak diren aldaketak eginda eta Babeslaritzari horren berri eman ondoren. Halaber, eta Fundazioaren helburuak hobeto betetze aldera, Patronatuak bulegoak ireki eta ordezkaritzak sortu ahalko ditu Espainiar Estatuko nahiz Espainiar Estatutik kanpoko beste hiri batzuetan.

### **2. artikulua.- Iraupena.**

Fundazioak iraupen mugagabea izango du. Hala ere, noizbait Fundazioaren helburuak bete direla edo lortu ezinezkoak bilakatu direla ebazten bada, Patronatuak Fundazioa iraungitzea erabaki ahalko du, estatutu hauetako 37. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **3. artikulua.- Araubidea.**

Fundazioaren araubidea honako hau izango da: eratzailleak Fundazioaren eratze eskrituran adierazitako borondatea, estatutu hauek, Patronatuak estatu hauek interpretatuz eta garatuz ezartzen dituen xedapenak eta, betiere, Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoan, eta gainerako garapen arauak.

### **4. artikulua.- Nortasun juridikoa.**

Fundazioak berezko nortasun juridikoa du Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik. Horrek, erabateko gaitasun juridikoaz gain, jarduteko gaitasun osoa ere ematen dio.

Hortaz, izaera murriztailerik gabe aipatzen diren honako jarduketa hauek burutzeko gaitasuna izango du: mota guztietako ondasun higigarriak, higiezinak eta eskubideak eskuratu, kontserbatu, eduki, xedatu, besterendu eta zamatatu, edozein bide erabiliz; orotariko egintzak edo kontratuak egin; transakzioak egin eta gobernu-bidera nahiz auzibidera jo auzitegietan, epaitegietan eta erakunde publiko nahiz pribatuetan mota guztietako akzioak eta salbuespenak egikaritzeko. Hori guztia, Babeslaritzaren baimenarekin beti eta komunikazioei nahiz berrespenei dagokienez haren aurrean jarraitu beharreko administrazio prozedurak betez.

## II. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA

### **5. artikulua.- Helburuak eta jarduerak.**

Fundazioaren helburuak honako hauek dira:

1. SORTUren oinarri ideologikoak ezagutaraztea eta zabaltzea: independentzia, euskalduntze osoa, sozialismoa, justizian eta askatasunean oinarritutako bakea, feminismoa, herrien arteko elkartasun internazionalista eta antiinperialista eta demokrazia parte-hartzailea.
2. Euskal Herriaren burujabetza, aurrerapen soziala, demokrazia sakona eta mundu askeago, justuago eta solidarioago bat lortzeko asmoz euskal gizartearen baitan lan egiten duten pertsona eta erakundeen pentsaera politikoa zabaltzea.
3. Euskal Herriko lurralde eta herrien arteko harremanak garatzea, Euskal Herri osoko pertsonen arteko elkar ezagutza sustatzeko, bertako pluraltasunarekiko errespetua bultzatuz.
4. Ezker abertzalearentzat gogoetarako, ideiak aztertzeke eta ekarpen ideologiko berriak jasotzeko gunea izatea. Halaber, aldaketa sozialeko prozesuak, goraka ari diren kontraesanak nahiz gatazkak eta hortik eratortzen diren ekintza ahalmenak aztertzeke gunea izatea.
5. Ekinbide kolektiboaren arloan garatzen ari diren proposamen eta forma berrien eztabaida eta ikaskuntza sustatzea, gizarte inklusiboa, parekidea, iraunkorra eta parte-hartzailea lortzeko asmoz.
6. Euskal Herrian nahiz munduko beste herrialdeetan herrien burujabetza aldeztzen duten erakunde sozial eta politikoekiko eta beste talde eta alderdi politiko batzuetako pertsonakiko harremanak sustatzea.



7. Ezkerreko sektoreetako eta herrien askapen mugimenduetako politikarien, pentsalarien eta estrategien arteko sareak eta aliantzak indartzea eta bultzatzea, guztiek partekatutako balore eta ideien inguruko agenda komun bat identifikatuz eta sustatuz.
8. Oroimen historiko kolektiboa berreskuratzeko tresna izatea, historiaren ezaguera artikulatzeko eta, dinamismotik eta era etengabea, iragana etorkizuneko erronkekin uztartzeko.

Bere helburuak hobeto betetzeko, Fundazioak honako jardura hauek egin ditzake, besteak beste:

1. Ikaskuntzarako eta ikerkuntzarako laguntzak eman.
2. Biltzarrak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, urtemuga historikoak eta kulturaren nahiz heziketaren arloko bestelako ekimenak antolatu eta finantzatu.
3. Erakusketa edo emanaldi monografikoak egin.
4. Artikuluak, liburuak, aldizkariak, liburuxkak, bideoak, filmak eta ikus-entzunezko nahiz idatzizko beste edozein euskarri prestatu, egin, argitaratu eta zabaldu, web orriak eta abian diren nahiz etorkizunean sor litezkeen bestelako euskarri digitalak sustatu, Fundazioaren helburuak garatzeko eta betetzeko helburuarekin beti.
5. Antzeko elkarteak edo fundazioak sortu edo, egotekotan, haietan parte hartu, Fundazioaren xedea hobeto betetzeko lagungarria bada.
6. Ikerlanak eta azterlanak egin.
7. Fundazioaren helburuak lortzeko lagungarriak izan daitezkeen balio dokumental edo sentimentaleko aztarnak bildu eta artxibategi nahiz museo jarduerak egin.
8. Bere ingurune sozialean sortzen diren eta Fundazioaren xedearekin zerikusia duten jarduerak bideratu eta sustatu.
9. Bere ikerlan eta azterlanen emaitzak argitaratu.
10. Sariak eta bestelako finantzabideak eman egunkarrietan, liburuetan, saiakeretan, irratan, telebistan eta, oro har, abian den edo etorkizunean sor litekeen edozein komunikabide edo hedabidetan egindako lanei, baita Fundazioaren xedearekin zerikusia duen edozein bizitza arlotan egindako lan emankorragatik nabarmendu diren pertsona edo instituzioei ere.
11. Patronatuaren Batzordeak Fundazioaren xedea lortzeko egokituz jotzen duen beste edozein jardura.
12. Fundazioaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekonomia jarduerak.
13. Eta, orokorrean, Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen diren jardura guztiak.

## **6. artikulua.- Jarduteko askatasuna.**

Patronatuak erabateko askatasuna izango du Fundazioaren jarduerak xedatzeko, Fundazioaren xedea betetzeari begira une bakoitzean egokienak edo komenigarrienak iruditzen zaizkion helburu zehatzak lortze aldera.

## **7. artikulua.- Helburuen garapena.**

Fundazioaren helburuak honela garatuko dira, besteak beste:

- a) Fundazioaren bidez zuzenean, bere instalazioak edo besterenak erabiliz.
- b) Elkarte, fundazio edo sozietate izaerako beste entitate batzuk sortuz edo haiekin elkarlanean arituz, indarrean dagoen legediaren arabera beti.
- c) Nola edo hala Fundazioaren helburuak betetzen lagun dezaketen beste entitate, erakunde, instituzio edo pertsona fisiko nahiz juridiko batzuen jardueretan parte hartuz edo haiekin elkarlanean arituz, indarrean dagoen legediaren arabera beti.

## **III. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURUETARAKO ERABILTZEKO ETA ONURADUNAK AUKERATZEKO OINARRIZKO ARAUAK**

## **8. artikulua.- Errenten eta diru sarrerren zertarakoa.**

1. Ekonomia ustiapenen emaitzen eta beste edozein kontzepturengatik lortzen diren diru sarrerren ehuneko hirurogeita hamarra gutxienez Fundazioaren helburuetarako erabili beharko da, emaitza edo diru sarrera horiek lortzeko egindako gastuak kenduta, indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera. Gainerakoa Fundazioaren dotazioa edo erreserbak handitzeko erabili beharko da, Patronatuak erabakitzen duenaren arabera.
2. Betebehar hori betetzeko epea emaitza eta diru sarrera horiek lortu diren ekitaldiarekin batera hasiko da eta ekitaldi hori ixten denetik aurrera zenbatutako lau urtekoa izango da.



### **9. artikulua.- Baliabideak helburuen artean kopuru berdinetan banatzeko betebeharrak eza.**

Fundazioaren baliabideak haren helburuak betetzeko erabiliko dira, orokorrean eta kuotarik ezarri gabe.

### **10. artikulua.- Onuradunen aukeraketa.**

1. Fundazioaren jardunaren onuradunak aldeztatik zehaztu gabeko pertsonak izango dira.
2. Onuradunak mugatu behar diren kasuetan, hala nola bekak emateko edo proiektuak finantzatzeko orduan, Fundazioak lehentasuna emango die bere helburuen arabera lagundu ahal dion biztanleriaren sektorekoak diren pertsonari, inpartzialtasunez jokatzearen eta inor ez baztertzearen irizpide orokorrak eta merezimenduaren eta gaitasunaren irizpide partikularrak betez. Horrez gain, aintzat hartu ahaliko ditu lurralde pluraltasuna, onuradunen premia-egoera pertsonalak, eskaeren hurrenkera eta tankera horretako beste irizpide batzuk. Patronatuak deialdi bakoitzeko betekizun espezifikoak xedatu ahaliko ditu, eta, hala badagokio, aukeraketa organoaren osakeraren erabiliko dituen irizpideak eta baloratuko dituen betekizunak eta merezimenduak.
3. Onuraduna izan aurretik inork ezingo du, ez banaka ez taldeka, onuradun eskubiderik alegatu Fundazioaren edo Patronatuaren aurrean. Era berean, inork ezingo du Fundazioa edo Patronatua pertsona jakin batzuk onuradun aukeratzera behartu.

### **11. artikulua.- Jarduera eta funtzionamendu printzipioak.**

Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:

- a) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren xede eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek oro har eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.
- b) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- c) Jarduteko jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu.
- d) Patronatuko kideen zerbitzu-espirtuaren sustapena, bai eta fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirtuarena ere.
- e) Etengabeko lankidetzeta leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesleztarekin.

- f) Ondarea eta errentak fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zaintza, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrita.
- g) Genero-berdintasuna.

## **IV. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN PATRONATUA**

### **LEHEN ATALA. ARAU OROKORRAK.**

#### **12. artikulua.- Patronatuaren izaera eta patronatu kideen erantzukizuna.**

1. Patronatuak Fundazioa gobernatu, administratu eta ordezkatu du, ordenamendu juridikoak eta estatutu hauek ematen dizkioten eskumenak erabiliz. Patronatuko kideek ordezkari leial bati dagokion arduraz beteko dituzte beti beren eginkizunak.

Patronoek erantzukizun solidarioa izango dute Fundazioaren aurrean Legearen edo Estatutuen kontrako egintzen ondorioz edo karguak eskatzen duen arduraz ez jardutearen ondorioz eragiten dituzten kalte edo galerengatik.

Ez dute inolako erantzukizunik izango, ordea, erantzukizuna eragin duen erabakiaren kontra bozkatu dutenak, edo frogatzen dutenak erabaki horren berri ez zekitela eta, beraz, ez zutela parte hartu haren onarpenean eta egikaritzean, edo frogatzen dutenak bazekitela erabakiaren berri eta beharrezkoa zen guztia egin zutela kaltea eragozteko edo, gutxienez, espresuki kontra agertu zirela.

2. Patronoek independentzia osoz erabiliko dituzte beren eskumenak, inolako trabarik edo mugarik gabe. Hortaz, mota guztietako xedapenak edo erabakiak hartzeko orduan, estatutu hauetan espresuki jasotako betekizunak edo ordenamendu juridikoan bete beharreko Zuzenbide izaeraz ezarritakoak soilik bete beharko dituzte, eta inork ezingo die besterik betearazi.

#### **13. artikulua.- Patrono karguaren doakotasuna eta Fundazioaren eta patronoen arteko kontratazio araubidea.**

1. Patronoek doan beteko dute kargua, beren lanegatik inolako ordainsaririk jaso gabe. Hala ere, Fundazioaren izenean edo haren onerako agintzen zaien edozein zeregin zehatz betetzeak sortzen dizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, gastu horiek behar bezala justifikatuz gero.



2. Patronoek kontratua egin dezakete Fundazioarekin, beren izenean edo beste norbaiten izenean, aldez aurretik Babeslaritzak horretarako baimena ematen badu.
3. Patronatuak ordainsari egoki bat finkatu ahalko du Patronatuko kide gisa dagozkien zereginenez bestelako zerbitzuak egiten dituzten patronoentzat, aldez aurretik Babeslaritzak horretarako baimena ematen badu.

## **BIGARREN ATALA. PATRONATUA.**

### **14. artikulua.- Osaera.**

1. Patronatuak gutxienez hiru kide eta gehienez 15 kide izango ditu. Muga horien barruan, Patronatuak berak ezarriko du une bakoitzean kide kopuru zehatza.
2. Patronatuko kide izan ahalko dira jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisikoak, baldin eta kargu publikoak betetzeko ezgaiturik ez badaude edo horretarako bateraezintasunik ez badute.
3. Pertsona juridikoak Patronatuko kide izan ahalko dira, eta ordezkatuak dituen pertsona fisikoak izendatu beharko dute. Ordezkaritza gisa pertsona bat baino gehiago izendatuz gero, ordezkatzeko hurrenkera ezarri beharko dute.
4. Patronoak pertsona fisikoak diren kasuetan, pertsona fisikoak berak bete beharko du kargua. Hala ere, berak izendatutako beste patrono batek beraren izenean jardun ahal izango du, egintza zehatzetarako eta, hala badagokio, ordezkatuak idatziz emandako aginduak betetzeko.
5. Daukan karguagatik patrono bihurtzen den pertsonaren izenean jardun ahalko du haren ordezkaria izango den pertsonak.

### **15. artikulua.- Patronatuko kideak izendatzeko eta ordezkatzeko arauak.**

1.- Lehen Patronatua eratze eskrituran izendatutakoa izango da.

Patrono karguak 4 urteko iraupena izango du, baina pertsona bera nahi beste aldiz berretsi ahalko da kargurako, denbora mugarik gabe.

Patronoek karguan iraungo dute Patronatuak postu horietarako izendatutako pertsona berrien parte-hartzearekin egiten duen hurrengo bilerara arte.

SORTUren kongresua egiten den bakoitzean, Kontseilu Nazionalak edo haren ordezkari batek organo betearazle baliokideak bi hilabeteko epea izango du hurrengo 4 urteetan Fundazioaren Patronatua osatuko duten pertsonak izendatzeko.

## 16. artikulua.- Patronatuko karguak.

1. Patronatuak kideek izendatutako pertsona bat izango du lehendakari, zeinak ezinbestean Patronatuko kide izan beharko baitu. Agintaldia lau urtekoa izango du, hortik aurrerako izendapenak baztertu gabe.
2. Patronatuak lehendakariorde bat edo gehiago izendatu ahalko du patronoen artean, lehendakaria ordezteko hura ez dagoenean edo gaixotzen denean. Lehendakariordearen agintaldia 4 urtekoa izango da, eta kargurako berretsia izan daiteke. Baldintza berdinetan eta eginkizun desberdinekin, Patronatuak beste kargu batzuk sortu ahalko ditu.
3. Halaber, Patronatuak Idazkari bat izendatu beharko du. Idazkaria patronoetako bat edo beste pertsonaren bat izan daiteke. Patrono ez bada, hitza izango du Patronatuan, baina botorik ez.
4. Patronatuak idazkariorde bat izendatu ahalko du, idazkariari laguntzeko eta hura ordezteko kanpoan izateagatik, ezintasunagatik edo gaixotasunagatik bere eginkizunak betetzea ezinezkoa zaionean. Idazkariordea patrono ez den norbait izan daiteke.
5. Goian aipatutako karguetakoren bat betetzen duen pertsonak patrono izateari uzten badio, dagokion kargua ere utziko du. Salbuespen bakarra idazkaria izango da: patrono ez den idazkari kargua betetzen jarraitu ahalko du, Patronatuak hala ebatziz gero.
6. Patronatuak artikulua honetan aipatutako karguetarako edozein izendapen ezeztatu ahalko du, gehiengoz hartutako erabaki arrazoituaren bidez. Hala ere, kargutik kendutako pertsonak patrono izaten jarraituko du, estatutu hauetako 18. artikuluan aipatutako arrazoiengatik soilik utziko baitzaio patrono izateari.

## 17. artikulua.- Patronatukideen eta karguen izendapena eta uko egitea.

1. Patronatu kideek eta karguek onartu beharko dute beren izendapena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 16. artikulua 2. atalean aurreikusitako moduren baten arabera. Pertsona juridikoak diren patronoek eskumen hori daukan organoaren bidez onartuko dute kargua. Organo horrek Patronatuan pertsona juridikoaren ordezkaria izango den pertsona fisikoa izendatuko du, estatutu hauetako 14. artikuluan zehazten den eran. Ordezkariaren izendapena Patronatuari eta Fundazioen Erregistroari jakinarazi beharko zaie.
2. Patronatuko kideari eta karguari uko egiten badiote, 9/2016 Legearen 16. artikulua 2. atalean aurreikusitako moduren batean egin beharko dute.
3. Patronatuko kideen edo karguen izendapen, onarpen, berrespen, ordezpen, uko egite eta kargu-uzte guztiak Babeslaritzari jakinaraziko zaizkio eta Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

Daukaten karguagatik patrono izendatzen diren pertsonen onarpen formalean, karguan norik ordeztuko duen jakinaraziko zaio Fundazioen Erregistroari.



### **18. artikulua.- Patronoen kargu-uztea.**

Ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira Fundazioko patronoek kargua uzteko arrazoiak:

- a) Heriotza, heriotza-deklarazioa edo nortasun juridikoaren iraungipena.
- b) Ezgaitasuna, desgaitasuna edo bateraezintasuna, Legean ezarritakoaren arabera.
- c) Patronatuko kide izendatzeko arrazoa izan zen kargua uztea.
- d) Kargua indarrean dagoen legedian ezarritako arduraz ez betetzea, epaile batek hala ebatziz gero.
- e) Indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera erantzukizun-akzioa jasotzen duen ebazpen judiziala.
- f) Fundazioaren eratze eskritura publikoa eman zenetik bost hilabeteko epea igarota Fundazioen Erregistroan inskripzioa ez egitea.
- g) Agintaldia bukatzea, denboraldi jakin baterako izendatuak izan baziren.
- h) Kargua betetzeko pertsona egokia ez izatea Fundazioaren irudiari edo lanari kalte egin ahal diolako, Patronatuak hala ebatziz gero.
- i) Justifikatutako arrazoirik gabe Patronatuaren bileretara behin eta berriz ez joatea, Patronatuko gainerako kideek hala ebatziz gero.
- j) Karguari uko egitea, karguaren onarpen agirian jasotako edozein bide erabiliz eta bertan zehaztutako tramiteak eginez.

### **18.bis. artikulua.- Patronatu kideak ordeztea.**

1. Patronatuko kide baten kargugabetzea gertatzen denean, Patronatuko idazkariak, gehienez hamabost eguneko epean, hala jakinaraziko dio Sortuko Kontseilu Nazionalari edota maila bereko organo betearazleari, zeinak gehienez bi hilabeteko epean, Patronatuko beste kide bat izendatuko duen.
2. Uneren batean patronatukideak hiru baino gutxiago badira, patronatukide bakarreko kasuetan izan ezik, gainerako patronatukideek (beti ere haien kargua indarrean dagoela), edo fundatzaileek, hala badagokio, behar adina kide izendatu ahal izango dituzte legeak eskatzen duen gutxieneko kopurura iristeko, eta hogeita hamar eguneko epea izango dute izendapen horiek Babesleztari horren berri emateko.

### **19. artikulua.- Eskumenak.**

Patronatuaren eskumenek Fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagokien guztia biltzen dute, inolako salbuespenik gabe.

Izaera murriztailerik gabe artikulua honetan aipatzen diren eskumen eta ahalmenak izango ditu Patronatuak. Betiere, Babeslaritzak berari dagozkion baimenak eman beharko ditu eta legeak ezarritako jakinarazpenak egin beharko zaizkio:

1. Fundazioaren lanaren goi zuzendaritza, ikuskaritza, zaintza eta orientazioa egitea.
2. Fundazioaren estatutuak interpretatzea eta behar izanez gero aldatzea edo arau osagarrien bidez garatzea, baldin eta hori Fundazioaren interesetarako eta helburuak hobeto betetzeko komenigarria bada.
3. Fundazioaren funtzionamendu ildo orokorrak edo bereziak finkatzea.
4. Ahaldu orokorrak edo bereziak izendatzea.
5. Fundazioaren zuzendaria izendatzea eta ahalduak.
6. Fundazioaren prestazioen onuradunak baiestea.
7. Babeslaritzari aurkeztu beharreko ekintza plana, dagokion memoria, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua onestea.
8. Fundazioaren egoitza aldatzea, estatutuetan horretarako beharrezkoak diren aldaketak eginda eta Babeslaritzari horren berri eman ondoren, eta ordezkariak irekitzea edo ixtea.
9. Fundazioaren fusioari edo iraungipenari buruzko erabakiak hartzea, azken hori helburuak betetzea ezinezkoa izanez gero.
10. Bere eskumenak patrono baten edo gehiagoren esku uztea, legez eskuordetu ezin direnak izan ezik. Halaber, nahi adina batzorde sortu eta beharrezkotzat jotzen dituen eginkizunak eman ahalko dizkie, lehen adierazitako mugekin. Artikulu honetako 1., 2., 3., 5. eta 20. puntuetan jasotako eskumenak ere ezin dira eskuordetu.
11. Fundazioarentzat edo Fundazioaren aldetik ondasun higigarriak edo higiezinak eskuratzea, besterentzea eta zamatzea –hipotekak, bahiak eta antikresiak barne-, dagozkion kontratuak izenpetuz.
12. Fundazioarentzat edo Fundazioaren helburu jakin bat betetzeko ondasunak edo eskubideak eskuratzea onartzea, baldin eta libreki ebatzen badu eskuratutako ondasunen edo eskubideen izaera eta kopurua egokiak edo nahikoak direla ondasun edo eskubide horiek eta haien errentak edo emaitzak baliatuz lortu nahi den helbururako.
13. Entitate publiko eta pribatuekin mota guztietako finantza eragiketak ituntzea, maileguak eta kredituak barne.



14. Fundazioaren ondarea osatzen duten balore higigarriak eskuratzeari eta besterentzeari buruzko erabakiak hartzea.
15. Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen errentak, emaitzak, dibidenduak, interesak, etekinak eta beste edozein produktu eta onura kobratzea eta jasotzea, baita edozein tituluk edo pertsona fisiko nahiz juridikok Fundazioari zor dizkion diru kopuruak ere.
16. Bere jabetzakoak diren akzioen eta gainerako balore higigarrien titular gisa Fundazioari dagozkion eskubide politiko eta ekonomikoak erabiltzea eta, horren haritik, bildu, eztabaidatu eta bozkatu, nahi duen eran eta erabakitzen duen ordezkarezekin, dagozkion Konpainietako edo entitate jaulkitzaileetako Batzar Orokorretan, Biltzarretan, Elkarteetan eta gainerako organismoetan, aipatutako titularrari esleitutako ahalmen juridiko guztiak erabiliz, komenigarritzat jotzen dituen egintzak, kontratuak, hitzarmenak, proposamenak eta agiriak itunduz, emanaz eta izenpetuz.
17. Beharrezkoak diren ordainketa guztiak egitea, dibidendu pasiboiei dagozkionak eta Fundazioak une bakoitzean dituen funtsak biltzeko, administratzeko eta babesteko beharrezkoak diren gastuei dagozkionak barne.
18. Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko komenigarritzat jotzen dituen obrak egitea erabakitzea eta mota guztietako zerbitzuak eta hornikuntzak kontratatzea, haien kalitatea eta garrantzia edozein delarik ere. Askatasun osoz, edozein prozedura erabili ahalko du horretarako, hala nola eskuratzeko zuzena edo enkantea nahiz lehiaketa, horretarako inolako baimenik beharko ez duelarik.
19. Eskubide, ekintza eta salbuespen guztiak erabiltzea, Fundazioari dagozkion edo interesatzen zaizkion prozedura, espediente, erreklamazio eta epaiketa guztiak bideratuz horretarako ezarritako tramite, instantzia, intzidentzia eta helegiteen bidez, eta horretarako beharrezkotzat jotzen dituen ahalordeak emanaz, posizioei erantzutea eta berrikuste epaiketak barne.
20. Beharrezkotzat jotzen dituen gobernamentu oneko kodeak eta barne araudiak onartzea, aldi baterako finantza inbertsioak egiteko ereduak kodeak barne.
21. Oro har, Fundazioaren ondasunak erabiltzeko, administratzeko, kontserbatzeko, zaintzeko eta babesteko eginkizun guztiak betetzea, auzibidez nahiz auzibidetik kanpo.
22. Oro har, Fundazioa gobernatzeko edo administratzeko garatu behar dituen beste eginkizun guztiak, legeek ezarritakoaren arabera beti.  
Patronatuak hartzen dituen erabakiak betearaztea Lehendakariaren ardura izango da, baina erabaki horietan espresuki izendatu ahal da beste patrono bat edo gehiago.

## 20. artikulua.- Bilerak eta erabaki-hartzeak.

1. Patronatua urtean bi aldiz gutxienez bilduko da. Horrez gain, Lehendakariak deitzen duen guztietan edo Patronatuko kideen heren batek gutxienez hala eskatzen duenean bilduko da. Urteko lehenengo sei hilabeteetan ezinbestez elkartuko da urteko kontuak onartzeko, bai eta hurrengo ekitaldiko Jarduera-Plana onartzeko ere.
2. Idazkariak idatziz bidaliko ditu deialdiak, gai zerrenda eta bileraren lekua, eguna eta ordua zehaztuz eta gutxienez hamabost egun natural lehenago. Urgentziazko kasuetan, epe hori berrogei ta zortzi orduetara laburtu ahalko da.

Deialdia banaka bidaliko zaie patrono guztiei, edozein prozedura erabiliz, bide informatikoak, elektronikoak edo telematikoak barne.

Patrono guztiak presente egonda Patronatua eratzea aho batez erabakitzen badute eta gai zerrenda adosten badute, ez da beharrezkoa izango deialdia egitea.

3. Patronatua telefonozko multikonferentziaren, bideokonferentziaren edo horrelako beste edozein sistemaren bidez bildu ahalko da. Patrono batek edo gehiagok sistema horien bidez parte hartu ahalko dute bileran, baina horretarako beharrezkoa izango da haien arteko komunikazioa denbora errealean egiten dela ziurtatzea, egintza batasuna bermatzeko.
4. Patronatua baliozkotasunez eratuta geratuko da kideen erdiak baino gehiago biltzen direnean, zuzenean edo ordezkari bidez. Betiere, gutxienez bost kide egon beharko dira bileran, eta haietako bat Lehendakaria edo, haren ordezkari, Lehendakariordea izango da. Idazkaria edo Idazkariordea ere egon beharko dira bileran, baina patrono ez badira ez dira kontuan hartuko goian aipatutako kopururako. Idazkaria eta Idazkariordea kanpoan badira edo bilerara joatea ezinezkoa bazea, Patronatuak bileran diren kideen artean izendatzen duen patronoak ordeztu ahalko ditu.
5. Legearen edo estatutuen arabera beste quorum bat aplikatu behar den kasuetan izan ezik, erabakiak bileran diren edo ordezkatuta dauden patronoen botoen gehiengo soilez hartuko dira. Gehiengo soilez ulertzen da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago izatea. Berdinketa egonez gero, Lehendakariak edo hura ordeztzen duen Lehendakariordeak kalitateko botoa izango du.
6. Idazkariak bileren akta egingo du, Lehendakariaren ontzat emanarekin. Akta dagokion bileran bertan edo hurrengoan onartuko da, edo Patronatuak bileran diren kideen artean izendatutako bi ikuskatzaileraren bidez.



## HIRUGARREN ATALA. ORGANO ESKUORDETUAK.

### 21. artikulua.- Batzorde Betearazlea.

1. Batzorde Betearazlea Patronatuaren ordezkariak jarduten duen organoa da. Patronatuak beraren esku uzten dituen gai zehatzak ebazten ditu eta, oro har, Fundazioaren jardueren jarraipena egiten du, Patronatuari bere lanaren berri emanez beti.
2. Batzorde Betearazlea urtean 3 aldiz gutxienez bildu beharko da.
3. Batzorde Betearazleak gehienez ere 5 kide izango ditu: Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria eta Patronatuak izendatzen dituen patronoak. Bere agintaldian, Patronatuak Batzorde Betearazlea osatzen duten patronoen izendapena aldatu ahalko du, aipatutako karguak izan ezik.

Batzorde Betearazlearen bileretan parte hartu ahalko dute, hitzarekin baina botorik gabe, aztertuko diren gaien inguruan duten ezagutza edo esperientzia bereziagatik Lehendakariak berariaz deitzen dituen patronoek.

4. Batzorde Betearazlea biltzeko deialdia Idazkariak egingo du, Lehendakariaren aginduz, hamar egun natural lehenago gutxienez. Halaber, Idazkariak bileren akta egingo du, Lehendakariaren onzat emanarekin. Aktak hurrengo bileran onartuko dira, edo Batzorde Betearazleak bileran diren kideen artean Lehendakariaren proposamenez izendatzen dituen bi ikuskatzaileen bidez.
5. Batzorde Betearazleko kideek Batzordeko beste kide bati eman ahalko diote beren ordezkaritza, idatziz eta bilera bakoitzerako.
6. Batzorde Betearazlea baliozkotasunez erabakia gertatu dadin, ezinbestekoa izango da bileran Batzordeko kideen erdiak izatea eta haien artean Lehendakaria edo Lehendakariordea eta Idazkaria edo Idazkariordea egotea. Idazkaria eta Idazkariordea kanpoan badira edo bilerara joatea ezinezkoa bada, Patronatuak bileran diren kideen artean izendatzen duen patronoak ordeztu ahalko ditu.
7. Erabakiak Patronatuan bezalaxe hartuko dira, estatutu hauetako 20.3. artikuluan ezarritakoaren arabera.
8. Urgentziazko kasuetan, Batzorde Betearazleak erabakiak hartu ahalko ditu bilerarik egin gabe, Lehendakariak idatziz bidalitako proposamen zehatzei buruz. Batzorde Betearazleko kideek idatziz erantzun beharko diete proposamen horiei, jasotzen dituzten egunetik aurrera zenbatutako berrogeita zortzi orduko epean.
9. Batzorde Betearazleak bere erabakien berri emango dio Patronatuari hark egiten duen lehen bileran.

## LAUGARREN ATALA. LEHENDAKARIA.

### **22. artikulua.- Eginkizunak.**

Patronatuaren Lehendakariaren eginkizunak honako hauek izango dira:

- a) Patronatuaren bileretarako deialdia egitea eta gai zerrenda finkatzea.
- b) Bileraburu izatea, eztabaidak gidatzea eta moderatzea, erabakiak bozketara eramatea eta bozketen emaitza jakinaraztea.
- c) Patronatuak hartutako erabakiak behar bezala betetzen direla bermatzea.
- d) Legea eta estatutuak betearaztea.
- e) Aktak eta Patronatuak hartutako erabakien ziurtagiriak ikus-onestea.
- f) Fundazioaren ordezkaria izatea epaiketetan nahiz epaiketetatik kanpo, baldin eta Patronatuak espresuki beste kide bat ordezkari izendatu ez badu.
- g) Urteko kontuak formulatzea, Patronatuak onar ditzan.
- h) Legeek edo estatutuek esleitzen dioten beste edozein eginkizun edo eskumen.

## BOSGARREN ATALA. LEHENDAKARIORDEAK.

### **23. artikulua.- Eginkizunak.**

Lehendakari kargua bete gabe badago edo Lehendakaria kanpoan bada edo gaixorik badago, haren eginkizunak lehendakariorde bakarrak edo lehen lehendakariordeak beteko ditu, eta, lehendakariorde ere ez badago, bigarrenak edo hurrengoek, izatekotan.

## SEIGARREN ATALA. IDAZKARIA ETA IDAZKARIORDEA.

### **24. artikulua.- Idazkariaren eginkizunak.**

- a) Patronatuaren Idazkariaren eginkizunak honako hauek izango dira:
- b) Patronatuaren bileretarako deialdia egitea, Lehendakariaren aginduz, eta deialdia Patronatuko kide guztiei bidaltzea.



- c) Patronatuaren bileretara joatea. Patrono bada, hitza eta botoa izango ditu. Patrono ez bada, hitza soilik izango du.
- d) Fundazioaren dokumentazioa gordetzea eta Patronatuaren bileren nondik norakoak akta liburuan behar bezala jasotzea.
- e) Patronatuak hartutako erabakien ziurtagiriak egitea, Lehendakariaren ontzat emanarekin.
- f) Idazkari karguari dagozkion beste eginkizun guztiak edo Fundazioaren estatutuetan espresuki jasotzen direnak.

#### **25. artikulua.- Idazkariordearen eginkizunak.**

Idazkariordeak idazkariari lagunduko dio eta hura ordeztuko du kanpoan izateagatik, ezintasunagatik edo gaixotasunagatik bere eginkizunak betetzea ezinezkoa zaionean.

Patronatuak kontrakoa ebazten ez badu, idazkariordea Patronatuaren eta Batzorde Betearazlearen bileretara joan ahalko da, idazkariari bere lana egiten eta bileren akta idazten laguntzeko.

### **V. KAPITULUA. BESTE ORGANO BATZUK.**

#### **LEHEN ATALA. ZUZENDARIA.**

#### **26. artikulua.- Izendapena eta eginkizunak.**

1. Zuzendaria Fundazioaren zuzendaritza betearazleaz eta kudeaketa operatiboaz arduratuko da. Lehendakariak proposatu eta Patronatuak izendatuko du, bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak zaizkion eskumenak emanaz.
2. Patronatuari eta Batzorde Betearazleari dagozkien eskumenak alde batera utzita, Zuzendariaren ardura izango da ekintza plana gauzatzea eta aurrekontua kudeatzea, beraren esku uzten diren bestelako eginkizunak betetzeaz gain. Fundazioaren zerbitzu tekniko eta administratiboak zuzenduko ditu, langileak izendatuz eta kenduz eta haien ordainsariak finkatuz. Fundazioaren funtzionamendu onerako beharrezkoa den laguntza guztia jasoko du zuzendaritza batzordeko kideen, administrarien, kudeatzaileen eta laguntzaileen aldetik.
3. Patronatuaren eta Batzorde Betearazlearen bileretara joango da, hitzarekin baina botorik gabe.

## **BIGARREN ATALA. AHOLKU KONTSEILUA.**

### **27. artikulua.- Izendapena eta eginkizunak.**


1. Lehendakariak proposaturik eta Patronatuak onetsi ondoren, Aholku Kontseiluko kide izango dira mundu akademikoan, profesionalean, kulturean eta sozialean entzute handikoak diren pertsonak, beren jakintza handiagatik Fundazioari kontu teknikoetan eta bere politikak formulatzen lagundu eta aholkularitza eman ahal badiote.
2. Aholku Kontseiluaren burua Fundazioaren Lehendakaria izango da, eta idazkaritza lana Zuzendaritza Batzordeko Idazkariak egingo du.
3. Aholku Kontseilua ez dago erabakiak hartzera behartuta, eta kideek doan arituko dira karguan. Hala ere, beren lanak sortzen dizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, gastu horiek behar bezala justifikatuz gero.

## **VI. KAPITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA**

### **28. artikulua.- Fundazioaren ondarea.**

Fundazioaren ondarea honako hauek osatuko dute: batetik, zuzkidura osatzen duten eta ekonomikoki balioets daitezkeen ondasunek, eskubideek eta obligazioek; eta, bestetik, eratu ondotik fundazioak lortutakoek –zuzkidurari lotu ala ez–.

### **29. artikulua.- Ondarezko zuzkidura.**

- 
1. Fundazioaren hasierako ondarezko zuzkidura eratzeke eskritura publikoan jasotzen da, eta fundazioaren sortzaileek ekarritako ondasunek eta eskubideek osatzen dute.
  2. Ondorengo ondarezko zuzkidurak Patronatuak onartu beharko ditu, eta urteko kontuetan jaso behar dira.
  3. Fundazioak bere zuzkidura handitzera zuzendu behar ditu diru-sarreren soberakinak.

### **30. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea.**

1. Fundazioaren ondarea zaindu eta babesteko, arau hauek bete beharko dira:



- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egon behar dira. Inbentarioan jaso beharko dira, eta, kasuan kasu, dagozkien erregistroetan inskribatuko beharko dira.
  - b) Ondasun higiezinak eta/edo benetako eskubideak Fundazioaren izenean inskribatuko dira, Jabetza-Erregistroan. Inskribatu daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
  - c) Balioak eta esku-dirua, jabetza-tituluak, gordailu-ordezlagiriak eta jabaria, jabetza, erabilera, gozamina edo Fundazioaren titulartasunean dagoen beste edozein eskubide egiaztatzen duten beste edozein dokumentu Fundazioaren izenean gordeko dira, Patronatuak ezarritako erakundeetan.
  - d) Gainerako ondasun higigarriak (liburutegiak, artxibategiak eta mota guztietako beste aktibo batzuk). Patronatuak zehazten duen eran gorde eta zainduko dira.
2. Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentario-Liburuan zehaztuko dira. Liburu hori Patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da, eta bertan, haren ikuskaritzapean, haiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak agertuko dira.

### 31. artikulua.- Errentak eta diru sarrerak.

1. Zuzenbidean onartutako beste edozeinez gain, Fundazioaren diru sarreren jatorria hau izan daiteke:
  - a) Bere ondarearen etekinak.
  - b) Akzioak, obligazioak eta gainerako balore-tituluak saltzearen irabaziak, Fundazioak erabiltzen ez dituen akzioen harpidetze eskubideak barne.
  - c) Diru-laguntzak, dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak.
  - d) Fundazioak bere zerbitzu eta jarduerengatik jasotzen duen dirua.
  - e) Fundazioak Espainian nahiz atzerrian edozein erakunde pribatu nahiz publikoren aldetik lortzen dituen finantza baliabideak.
  - f) Biltzen diren eta Fundazioaren helburuak betetzeko erabil daitezkeen funtsak.
  - g) Bere ondarearen titular gisa Fundazioak lortzen dituen bestelako baliabide guztiak, hala nola jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak eta tankera horretako beste batzuk.
2. Gutxienez emaitzen kontuaren diru-sarreren % 70 baliatu beharko ditu Fundazioak bere helburuak gauzatzeko. Diru-sarrerak horiek kontzeptu guztiak direla-eta lortuak izango dira, diru-sarrerak lortzeko fundazioak izandako gastuak kenduta, fundazioaren helburuak betetzeari buruzkoak izan ezik.

Irabazi eta diru-sarrerak lortu direneko ekitaldiaren hasieratik hasi eta ekitaldi hori itxi ondoren hiru urte igaro arte izango da obligazio hori betetzeko epea.

3. Administrazio-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek haien karguak betetzeagatik egindakoak ere, baldin eta diru hori itzulia izateko eskubiderik badute.

### 32. artikulua.- Afektazioa.

Fundazioaren ondasunak eta errentak Fundazioaren helburuak betetzeari atxikita eta esleituta egongo dira.

Estatutu hauetako 9. artikuluan ezarritako arau orokorraren arabera, Fundazioaren ondarea 5. artikuluan aipatutako interes orokorreko helburuak betetzeko erabiliko da, orokorrean eta kuotarik ezarri gabe, hau da, helburu bakoitzerako Fundazioaren dotazioaren eta errenten parte edo kuota berdin nahiz desberdinik esleitu gabe. Hortaz, inork ezingo du Fundazioa behartu dotazioa edo errentak helburuen artean zatitzera edo banatzera, ezta helburu zehatz baterako edo gehiagorako erabiltzera ere.

### 33. artikulua.- Ekonomia eta kontabilitate betebeharrak.

1. Fundazioak bere jardunera egokitutako kontabilitate ordenatua eraman beharko du, eragiketen jarraipen kronologikoa egitea ahalbidetuko duena. Horretarako, Eguneko Liburua eta Inbentarioen eta Urteko Kontuen Liburua eduki eta bete beharko ditu.
2. Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidali beharko ditu urteko kontuak, behar bezala sinatuta, gordailu ditzaten. Kontuok irabazi asmorik gabeko erakundeetarako ezarritako kontabilitateari buruzko arauak bete beharko dituzte.
3. Fundazioaren urteko kontuek elementu hauek jasoko dituzte gutxienez: balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduera-planaren likidazioa. Orobat, Patronatuak kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitako kasuetan.
4. Halaber, kontuotan datu hauek guztiak jaso beharko dira: fundazioaren ondarezko, ekonomia eta finantza-egoera, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, Fundazioaren helburuak eta lege arauak bete direla jakinarazi eta egiaztatzeko betiere.
5. Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da, eta urte naturalarekin bat egingo du. (Urte naturalarekin bat egin ezean, estatutuetan adierazi beharko da).



6. Fundazioak Jarduera-Plan bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, non diru-sarrerak eta gastuak adieraziko baititu orekaz. Aurrekontu hori Babesletzari aurkeztuko zaio, onartzen den urtearen azken hiruhilekoan, azalpen-memoriarekin batera.

#### **34. artikulua.- Xedatze- eta zergapetze-egintzak.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko dizkio Fundazioak beraren ondarea osatzen duten ondasunen edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedatze-egintzak, baita kargatze-egintzak ere. Honako hauek, hain zuzen:
  2. Patronatuak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio Babesletzari, non zehaztuko baita xedatzeko edo kargatzeko erabakia behar bezala hartu dela eta horretarako arrazoiak eta beharrak zein diren, orobat eragiketarako fundazioari ez diola kalterik eragiten eta haren bideragarritasun ekonomikoa ere ez duela arriskuan jartzen.
  3. Xedatze- edo kargatze-egintzen xede diren ondasun edo eskubideek merkatuan duten balioa fundazioaren aktiboaren % 60 baino handiagoa bada, Patronatuak azterlan ekonomiko bat erantsi beharko dio erantzukizunpeko adierazpenari, profesional independente batek egina. Adierazpenean azaldutakoa egia dela ziurtatu beharko du azterlanak, eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharko du, bai eta eragiketa irizpide ekonomiko-finantzarioekin eta merkatukoekin bat datorrela ere.
  4. Aipatutako xedatze- edo zergapetze-egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasoko dira, edo beste edozein erregistrotan inskribatuko dira, hala badagokio. Gainerako xedatze- edo zergapetze-egintzak Babesletzari urtero aurkeztu beharreko memorian jaso beharko dira.

## **VII. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA**

#### **35. artikulua.- Erabakia hartzea.**

Fundazioaren helburuak betetzeko komenigarritzat jotzen bada, Patronatuak estatutu hauek aldatzea erabaki ahalko du, bileran diren edo ordezkaturik dauden patronoen hiru laurdenen aldeko botoarekin gutxienez eta legeak ezarritako prozedura betez.

## **VIII. KAPITULUA. FUNDAZIOA BESTE FUNDAZIO BATZUEKIN BATZEA**

### **36. artikulua.- Bidezkotasuna eta betekizunak.**

Patronatuak Fundazioa beste fundazio batekin edo gehiagorekin batzea erabaki ahalko du, bileran diren edo ordezkaturik dauden patronoen hiru laurdenen aldeko botoarekin gutxienez.

## **IX. KAPITULUA. FUNDAZIOA IRAUNGITZEA**

### **37. artikulua.- Arrazoiak.**

Fundazioaren helburuak bete direla edo lortu ezinezkoak bilakatu direla ebazten bada, Patronatuak Fundazioa iraungitzea erabaki ahalko du, bileran diren edo ordezkaturik dauden patronoen hiru laurdenen aldeko botoarekin gutxienez, eta erabakia Babeslaritzak berretsi beharko du. Fundazioa legeetan ezarritako beste edozein arrazoirengatik ere iraungiko da.

### **38. artikulua.- Likidazioa eta gelditzen diren ondasunen banaketa.**

1. Fundazioa azkentzen bada –haren jatorria bat-egite prozeduraren bat den kasuetan izan ezik– edo Fundazioa azkentzeko arrazoiak betetzen badira, likidazio-prozesuari ekingo zaio. Prozesu hori Patronatuak edo, Babesletzaren kontrolpean, gobernu-organo horrek izendatutako likidazio-batzorde batek eramango du aurrera, salbu eta, kasua hori bada, ebazpen judizial arrazoitu batek besterik ezartzen badu. Fundazioak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du prozesua amaitu arte, eta, epealdi horretan, «likidazioan» dagoen fundazio gisa identifikatu behar da.
2. Likidazioa egin ondoren gelditzen diren ondasunen eta eskubideen jasotzaileak honako hauek izan daitezke: irabazi asmorik gabeko beste fundazio edo entitate pribatu batzuk, edo fundazio izaera ez duten eta interes orokorreko helburuak dituzten entitate publikoak. Betiere, fundazio edo entitate pribatu horiek honako baldintza hauek bete behar dituzte: interes orokorreko helburuak izatea, desegite kasurako ere ondasunak helburu horiek betetzeari atxikita edukitzea, eta Irabazi Asmorik gabeko Entitateen eta Mezenasgorako Pizgarri Fiskalen Zerga Erregimenari buruzko 49/2002 Legeko 16.-25. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako mezenasgoaren entitate onuraduna izateko baldintzak betetzea.
3. Patronatuak askatasun osoz hautatuko ditu likidazioa egin ondoren gelditzen diren ondasunen eta eskubideen jasotzaileak
4. Fundazioaren iraungipena eta horren ondorioz ondasunen titulartasunean egiten diren aldaketak dagozkien Erregistroetan inskribatuko dira.



## X. KAPITULUA. BABESLETZA ETA ARAUBIDE ZIGORTZAILEA.

### **39. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza.**

Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren zainzapean, aholkularitzapean eta kontrolpean egongo da, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera.

### **40. artikulua. Araubide zigortzailea.**

Fundazioak ekainaren 2ko 9/2016 Legean, IV. Kapituluan ezarritako araubide zigortzailea bete behar du.

# ESTATUTOS DE LA FUNDACIÓN IRATZAR



## ÍNDICE

<b>CAPÍTULO I. INSTITUCIÓN DE LA FUNDACIÓN</b>	<b>4</b>
Artículo 1.- Denominación, naturaleza, nacionalidad, ámbito y domicilio	4
Artículo 2.- Duración	4
Artículo 3.- Régimen normativo	4
Artículo 4.- Personalidad jurídica	4
<b>CAPÍTULO II. OBJETO DE LA FUNDACIÓN</b>	<b>5</b>
Artículo 5.- Fines y actividades	5
Artículo 6.- Libertad de actuación	7
Artículo 7.- Desarrollo de los fines	7
<b>CAPÍTULO III. REGLAS BÁSICAS PARA LA APLICACIÓN DE LOS RECURSOS AL CUMPLIMIENTO DE LOS FINES FUNDACIONALES Y PARA LA DETERMINACIÓN DE LOS/AS BENEFICIARIOS/AS</b>	<b>7</b>
Artículo 8.- Destino de rentas e ingresos	7
Artículo 9.- Inexistencia de la obligación de destinar los recursos a la cobertura de fines por iguales partes	8
Artículo 10.- Selección de beneficiarios	8
Artículo 11.- Principios de actuación y funcionamiento	8
<b>CAPÍTULO IV. EL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN</b>	<b>9</b>
<b>SECCIÓN PRIMERA. NORMAS GENERALES</b>	<b>9</b>
Artículo 12.- Naturaleza del Patronato y responsabilidad de los/as patronos/as	9
Artículo 13.- Gratuidad del cargo de patrono/a y régimen de contratación de los/as patronos/as con la Fundación	9
<b>SECCIÓN SEGUNDA. EL PATRONATO</b>	<b>10</b>
Artículo 14.- Composición	10
Artículo 15.- Reglas para la designación y sustitución de sus miembros	10
Artículo 16.- Cargos en el Patronato	11
Artículo 17.- Aceptación y renuncia de patronos/as y cargos	11
Artículo 18.- Cese de los/as patronos/as	12
Artículo 18.bis.- Sustitución de las personas integrantes del Patronato	12
Artículo 19.- Competencia	13
Artículo 20.- Reuniones y adopción de acuerdos	15
<b>SECCIÓN TERCERA. ÓRGANOS DELEGADOS</b>	<b>16</b>
Artículo 21.- Comité Ejecutivo	16
<b>SECCIÓN CUARTA. EL/LA PRESIDENTE/A</b>	<b>17</b>
Artículo 22.- Funciones	17
<b>SECCIÓN QUINTA. LOS/AS VICEPRESIDENTES/AS</b>	<b>17</b>
Artículo 23.- Funciones	17
<b>SECCIÓN SEXTA. EL/LA SECRETARIO/A Y EL/LA VICESECRETARIO/A</b>	<b>17</b>
Artículo 24.- Funciones del/de la Secretario/a	17
Artículo 25.- Funciones del/de la Vicesecretario/a	18

<b>CAPÍTULO V. OTROS ÓRGANOS</b>	<b>18</b>
<b>SECCIÓN PRIMERA. EL/LA DIRECTOR/A</b>	<b>18</b>
Artículo 26.- Nombramiento y funciones	18
<b>SECCIÓN SEGUNDA. EL CONSEJO ASESOR</b>	<b>19</b>
Artículo 27.- Nombramiento y funciones	19
<b>CAPÍTULO VI. PATRIMONIO Y RÉGIMEN ECONÓMICO</b>	<b>19</b>
Artículo 28.- El patrimonio de la Fundación	19
Artículo 29.- Dotación patrimonial	19
Artículo 30.- Custodia del patrimonio fundacional	20
Artículo 31.- Rentas e ingresos	20
Artículo 32.- Afectación	21
Artículo 33.- Obligaciones económico-contables	21
Artículo 34.- Actos de disposición o gravamen	22
<b>CAPÍTULO VII. MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DE LA FUNDACIÓN</b>	<b>22</b>
Artículo 35.- Adopción de la decisión	22
<b>CAPÍTULO VIII. FUSIÓN DE LA FUNDACIÓN CON OTRAS</b>	<b>23</b>
Artículo 36.- Procedencia y requisitos	23
<b>CAPÍTULO IX. EXTINCIÓN DE LA FUNDACIÓN</b>	<b>23</b>
Artículo 37.- Causas	23
Artículo 38.- Liquidación y adjudicación del haber remanente	23
<b>CAPÍTULO X. PROTECTORADO Y REGIMEN SANCIONADOR</b>	<b>24</b>
Artículo 39.- El Protectorado de Fundaciones del País Vasco	24
Artículo 40.- Régimen sancionador	24



## **CAPÍTULO 1. INSTITUCIÓN DE LA FUNDACIÓN**

### **Artículo 1. Denominación, naturaleza, nacionalidad, ámbito y domicilio.**

